

BEAZ
ACCELERATION
PROGRAM

Zehaztapenak eta baldintzak



Edukia

1.	Programaren deskribapena.....	3
1.1.	Zer ematen dizugu?.....	4
1.2.	Parte hartzeko baldintzak	4
2.	Hautaketa-prozesua	5
2.1.	Deialdi irekia.....	5
2.1.1.	Izena emateko prozesua	5
2.1.2.	Aurkeztu beharreko dokumentazioa	5
2.2.	Eskaerak ebaluatzea.....	8
2.2.1.	Onarpen-Batzordea	9
2.2.2.	Balorazio-irizpideak eta -azpiirizpideak	9
2.2.3.	Elkarrizketa pertsonalak.....	10
2.2.4.	Datu osagarriak	10
2.3.	Hautatu diren <i>startup</i> ak zein diren jakinaraztea.....	11
2.3.1.	Hautaketa	11
2.3.2.	Atxikimendu-akordioa sinatzea	11
3.	Programa behar bezala gauzatzeko arauak	12
3.1.	Parte hartzeko konpromisoak	12
3.2.	Zigorak eta kanporatzeko arrazoiak.....	13
4.	Konfidentzialtasuna eta jabetza industrialaren/intelektualaren eskubideak	13
5.	Programaren oinarriak eta erantzukizuna onartzea.....	13
6.	Azken kontsiderazioak.....	14
7.	Eranskinak	15
7.1.	1. Eranskina: definizioak.....	15
7.2.	2. Eranskina: BEAZen eta <i>startup</i> aren arteko konfidentzialtasun-akordioa	17
7.3.	3. Eranskina: atxikimendu-akordioa.....	25
7.4.	4. Eranskina: Onarpen Batzordea.....	26


1. Programaren deskribapena

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programa Bizkaiko *startup* en lehenengo azeleratzaile publiko-pribatua da, eta *startup* teknologiko eta berritzaileak bilatzen ditugu, negozio-eredu eskalagarria dutenak eta hazkunde-fasean daudenak, beren proiektua garatzen laguntzeko.

Goi-errendimenduko Programa horren bidez, zeinak 6 hilabeteko iraupena baitu, enpresa-azeleraziorako dinamika bat hedatzen dugu, *startup*ei laguntzeko lau zutaberen bidez: trebakuntza eskusiboa, adituen aholkularitza, neurritza egindako finantziarioa eta merkaturako sarbidea eta nazioarteko konexioa errazten dituen kokapena.

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programa hiru fase bereizgarritan egituratuta dago, zeinek abiapuntua, aurrerapen-maila eta hitzartutako helburuak lortu diren aztertzen baitute. Kasu bakoitzean, Programa enpresen premia espezifikotara egokitzen da eta ezarritako helburuak lortzeko ekintza-plan bat zehazten du.

1. irudia BEAZ ACCELERATION PROGRAM - Faseak



Iturria: BEAZ

1.1. Zer ematen dizugu?

BEAZ ACCELERATION PROGRAM-an parte hartzeak dituen onura nagusiak hauek dira:

- Trebakuntza: enpresa-hazkunderako programa eksklusiboa, lehen mailako negozio-eskola batek emana.
- Adituen aholkularitza: abangoardiako Aholkularitza Batzorde bat, zure enpresaren hazkundearentzat ezinbestekoak diren gaietako espezialistekin.
- Neurria egindako finantziazioa: SEED CAPITAL, 100.000 €-rainoko inbertsioa jasotzeko aukera; hazkunde-fase honetako inbertsio-erronda negoziatzeko.
- Instalazioak: *startup* bakoitzeko pertsona batentzako sarbidea BAT B Accelerator Tower-erako, haren zerbitzu guztiak erabiltzeko aukerarekin (bilera-gelak eta bideokonferentziak, jangela eta kafetegia, ekitaldietarako esparruak, etab.).
- Enpresa-*networking*a: ekitaldi-programa osorako eta BAT B Accelerator Tower-en enpresa-komunitaterako sarbidea.
- Zure *startup*aren hedapena: BEAZ ACCELERATION PROGRAM programak zure *startup*ari ikusgarritasuna emango dio komunikabideetan eta sare sozialetan.

1.2. Parte hartzeko baldintzak

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da ezaugarri hauek betetzea:

- helbide soziala eta produkzio zentroa Bizkaiko lurralde historikoan duen *startup* bat izatea
- gutxienez bi pertsona dedikazio osoz proiektuan aritza
- soluzio berritzaile eta bereizgarri bat izatea
- baliozko Gutxieneko Produktu Bideragarri (GPB) bat eta merkatu-neurketa eta -ondorio baikorrak izatea
- arduraldi osoz proiektuan aritza

2. Hautaketa-prozesua

2.1. Deialdi irekia

Urtero, deialdi bat egingo da urtearen lehenengo hiruhilekoan, eta eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten *startupek* BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan parte hartzeko hautagaitzak aurkeztu ahal izango dituzte deialdi horretan.

2.1.1. Izena emateko prozesua

Startup hautagaiak BEAZ ACCELERATION PROGRAM programaren webgunean (beazaccelerationprogram.eus/es/) dagoen inprimakia bete beharko du, eta, harekin batera, Aurkeztu beharreko dokumentazioa puntuan zehazten den memoria aurkeztu; memoria horretan, hazkunde-proiektuari buruzko negozio-informazioa eman beharko da, eta proposamenari balioa erantsiko dion ikus-entzunezko dokumentazioa ere aurkeztu ahal izango da.

2.1.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Hautagaitza aurkeztean, atal hauek bete beharko dira:

- **Izena emateko inprimakia:** [web-inprimakiak](#) dituen atal hauek bete beharko dira, erregistro edo informazio orokor gisa:
 - Enpresaren datuak
 - Izena
 - IFK
 - Sortze data
 - Probintzia
 - Webgunea

- Harremanetarako pertsona
 - Izen-abizenak
 - Kargua
 - Posta elektronikoa
 - Telefonoa
- Informazio osagarria
 - Sektorea
 - Espezializazio-arloak / teknologia bideratzaileak
- **Memoria:** ez da zehazten *startupek* hautagaitza zer formatutan aurkeztu behar duten. Aurrekoa albora utzi gabe, memoriak, gutxienez, atal hauek izan beharko ditu:
 - Produktuarekin/zerbitzuarekin eta merkatuarekin erlazionatutako informazioa
 - Balio-proposamenaren eta enpresaren ibilbidearen deskribapen laburra.
 - Jarduera, jatorria eta gertaera garrantzitsuak.
 - Eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen xehetasunak. Zer garapen-fasetan daude? Baliozkotutako gutxieneko produktu bideragarria?
 - Deskribatu labur zer motatako berrikuntza teknologikoa den.
 - Merkatuarekin erlazionatutako informazioa
 - Xede-merkatua eta lehiakide nagusiak.
 - Produktuak/zerbitzuak lehiarako dituen abantailak.
 - Bezero-mota eta bilakaera: areagotzea/murritztea.

- Salmenta-kanal nagusiak: *go to market* estrategia
- Urteko kontuekin eta fakturazioarekin erlazionatutako informazioa
 - Uneko kapital soziala (zenbatekoa €-tan) eta bazkideen zerrenda (bazkide bakoitzari dagokion kapitalaren %-a).
 - Azken ekitaldietako emaitzen balantzea eta kontuak: n-2 urtea, n-1 urtea eta n aurtengo urtea.
 - Dibidenduen banaketaren xehetasuna (halakorik balego).
 - Enpresaren fakturazio bilakaera eta hurrengo ekitaldietarako aurreikusten diren zenbatekoak. Azaldu nola aurreikusten den salmenta horiek lortzea: bezeroekin hitzartutako akordioak dauden, etab. (mila €; urte bakoitzerako zenbatekoak: n-2 urtea, n-1 urtea, n uneko urtea, n+1 urtea, n+2 urtea, n+3 urtea, n+4 urtea).
- Taldearekin erlazionatutako informazioa
 - Gaur egun *startup* horren lantaldea osatzen duen langile-kopurua, lanaldi osoan nahiz partzialean daudenak kontuan hartuta. Pertsona gehiago kontratatzea aurreikusten da? Zer arlotan?
 - Lan-modalitatearen deskribapena (telelana, aurrez aurrekoa edo mistoa) eta plantilla osatzen duten pertsonen beren eginkizunak betetzen dituzten lantokiaren kokapena.
 - Lantaldea osatzen duten pertsonen esperientziaren deskribapen laburra, esperientzia profesionala, prestakuntza, enpresa-proiektuan duten parte-hartzea, sektorea ezagutzen duten, harremanak, eta abar.
 - Talde sustatzailearen / zuzendaritza-taldearen curriculum.
 - LinkedIneko profilak.

- *Startup*aren enplegu-zenbatekoen bilakaera. (Lanaldi osoan eta partzialean dagoen pertsona-kopurua; urte bakoitzeko zenbatekoak: n-2 urtea, n-1 urtea, n uneko urtea, n+1 urtea, n+2 urtea, n+3 urtea, n+4 urtea).
- Inbertsioarekin eta finantziazioarekin erlazionatutako informazioa
 - Hazkunde-plana; plan horretan, *startup*a non dagoen, nora iritsi nahi duen eta nola iritsi nahi duen jaso behar da.
 - Hazkunde-proiektua gauzatzeko behar den inbertsio-bolumena (mila €; urte bakoitzeko zenbatekoak: n+1 urtea, n+2 urtea, n+3 urtea, n+4 urtea), inbertsio horren helburua (aktibo materiak, I+G, finantziazio zirkulatzailerak, langileak kontratatzea...) baita zein helburu estrategikori erantzuten dion ere.
 - Finantzaketa iturri nagusiak
 - Eskara eginez gero, SEED CAPITALek eskainitako maileguaren xedea, programa honen irismenaren barruan.
- **Dokumentazio osagarria:** nahi izanez gero, *startup*ak ikus-entzunezko dokumentazioa (argibide-bideoak, etab.) edota *deck*ak partekatu ahal izango ditu, BEAZ ACCELERATION PROGRAM programaren webgunean izena emateko inprimakian horretarako prestatutako atalean.

2.2. Eskerak ebaluatzea

Eskerak aurkezteko epea amaitzen denean, urteko bigarren hiruhilekoaren hasieran, BEAZ ACCELERATION PROGRAM programak aurkeztu diren hautagaitzen lehenengo kalitate-berrikuspena egingo du, eta baztertu egingo ditu eskatutako informazioa behar bezala bete ez duten haiek.

Baldintzak betetzen ez dituzten eskerak baztertu ostean, Onarpen-batzordeak (4. Eranskina: Onarpen Batzordea) lehen hautaketa bat egingo du eta ebaluazioa egin ondoren gutxienez 50 puntu eskuratu dituzten *startup*ak aukeratu ditu, 2.2.2 atalean zehaztu diren

irizpideak eta azpiirizpideak kontuan hartuta. Puntuaziorik altuena lortzen duten *startup*ak igaroko dira elkarriketen fasera.

*Startup*ak aztertu eta ebaluatu ahal izateko, haiek antolatzaileei baimena ematen diete Onarpen-batzordeko kideen esku jar dezaten deialdian parte hartzeko aurkeztu duten dokumentazioa eta informazioa. Onarpen-/azelerazio-batzordeko kideek konpromisoa hartu dute prozesu horretan jasotzen duten informazioaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzeko.

2.2.1. Onarpen-Batzordea

Proiekturik onenak aukeratu ahal izateko, Onarpen-batzorde publiko-pribatu bat osatuko da (4. Eranskina: Onarpen Batzordea); batzorde horrek ebaluatuko ditu aurkeztu diren hautagaitzak, eta *startupe*kin bilduko da, haien proiektuetan sakontzeko eta Programarekin bat datozela egiaztatzeko.

Onarpen-batzorde hori arlo publikoko langileek (Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko Saila, BEAZ, SEED CAPITAL) nahiz pribatukoek (inbertsio-funtsak, *family office* eta inbertitzaile partikularrak) osatuko dute.

2.2.2. Balorazio-irizpideak eta -azpiirizpideak

Onarpen-batzordeak aurkeztu diren hautagaitzen kalitatea aztertu eta baloratuko du, irizpide eta azpiirizpide hauek eta haien haztapena kontuan hartuta. Gero, puntuaziorik altuena lortzen duten *startup*ak aukeratuko ditu, eta haiek igaroko dira elkarriketen fasera.

Balorazio-irizpideak eta -azpiirizpideak:

- Produktua/zerbitzua eta merkatua (40 puntu):
 - *Startup*aren balio-proposamenaren desberdintze-maila
 - Baliozkotutako gutxieneko produktu bideragarria
 - Berrikuntza teknologikoren maila
 - Salmenten bilakaera

- Go-To-Marketaren Estrategia
- Eskalabilitatea
- Proiektu-taldea (15 puntu):
 - Enpresa-proiekturako baliabide teknikoak eta giza baliabideak
 - Esperientzia, dedikazioa, merkatua ezagutzea, harremanak, etab.
- Finantza-egoerak (15 puntos):
 - Finantza-egoera orekatuta
 - Kutxa/diruzaintzako hilabeteak
- Hazkunde-plana (30 puntu):
 - Hazkunde-proiektuak enpresako estrategiarekiko eta negozio-ereduarekiko duen koherentzia
 - Inbertsioen eskema eta finantziazio-iturri orekatuak
 - Enpresaren bilakaeran duen eragina, hazkunde-estrategia dela-eta (enplegua eta fakturazioa)
 - Inbertsioak lehiarako gaitasunari egiten dion ekarpena

2.2.3. Elkarrizketa pertsonalak

Puntuaziorik altuena lortu duten *startupekin* banakako elkarrizketak egingo dira, Onarpen-batzordeak sustapen-taldeari buruzko informazio gehiago izan dezan.

2.2.4. Datu osagarriak

Elkarrizketaren ondoren, litekeena da Onarpen-batzordeak proiektua hobeto ulertzeko garrantzitsutzat jotzen duen informazio edo dokumentazioen bat eskatzea hautagai diren *startupe*i.

2.3. Hautatu diren *startup*ak zein diren jakinaraztea

2.3.1. Hautaketa

Azkenik, Onarpen-batzordeak puntuaziorik altuena lortu duten 5 *startup*ak aukeratuko ditu, eta haiek hartuko dute parte BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan; ebaluazioaren emaitza posta elektronikoz jakinaraziko da.

2.3.2. Atxikimendu-akordioa sinatzea

Hautagaiak hautatu ondoren, Programara atxikitzeak akordioa sinatuko da, ereduaren arabera: 3. Eranskina: atxikimendu-akordioa.

SEED CAPITAL BIZKAIA-ren aldetik finantzazioa jasotzeko, hautatutako *startup*-ek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute, SEED CAPITAL BIZKAIK epea eta gainontzeko baldintzen gainean ezarritako ezaugarrien arabera:

- F1 formularioa
- Urteko kontuen historikoa
- Benetako titulartasunaren ziurtagiria
- Eratze-eskriturak eta ondorengo aldaketak
- Kontseilarien kargu-uztea eta izendapena, halakorik badago
- Legezko ordezkartzaren eskriturak
- Kontseilari/administratzaileen NAN-a eskaneatuta
- Bazkideen erregistro-liburua eskaneatuta
- Azken sozietate-zerga
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak
- Jardueran aritzeko lizentziak

- Jabetza materialeko eta/edo immaterialeko tituluak, halakorik badago
- Azken RLC eta RNT-a

SEED CAPITAL BIZKAIA-ri egokituko saio kasu bakoitzean dokumentazioaren aurkezpenaren balorazioa, halaber, informazio gehigarria edo zuzenketarik beharko balitzateke errekerimendua egitea. SEED CAPITAL BIZKAIA-ri egokituko saio aldebateko eta hautazko erabakia finantzaketa onartzeko edo ezeztatzeko.

3. Programa behar bezala gauzatzeko arauak

3.1. Parte hartzeko konpromisoak

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan parte hartzeko hautatuak izan ostean, parte hartze duten *startup*ek Programari probetxu ezin hobe aterako diotela bermatzeko, *startup* horiek konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

- Erabateko arduraldia izatea *startup*ak programan parte hartzeko garatu duen enpresa-proiektuan.
- BATen *startup*aren esku jarri diren instalazioak erabiltzea.
- Negozio-eskolak emango dituen trebakuntza-saio eskusiboetan parte hartzea.
- Aholkularitza Batzordeak aurreikusten dituen saioetan eta aholkulariekin banaka egingo diren saioetan parte hartzea.
- Hilero, ibilbide-orrian zehaztu diren helburuetan egin diren aurrerapenen berri ematea, nola aholkulariei, hala BEAZeko taldeari.
- *Startup*ak BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan parte hartzea Programak irauten duen 6 hilabeteetan.
- Gainera, konfidentzialtasun-akordioan hartu diren konpromisoak bete beharko ditu (2. Eranskina: BEAZen eta *startup*aren arteko konfidentzialtasun-akordioa).

3.2. Zigorrak eta kanporatzeko arrazoiak

3.1 atalean zehaztutako konpromisoak beteko ez balira edo behar bezala beteko ez balira edo, oro har, Programaren aukerei eta helburuei probetxua aterako ez balitzaie, BEAZek idatziz ohartaraziko du *startup*a, bi aldiz gehienez, bere portaera egokitu dezan eta hartutako konpromisoak bete ditzan.

Bigarren ohartarazpenaren ondoren konpromisoak bete gabe jarraituko balu, Programatik kanporatua izango litzateke, BEAZek hori erabakitzeke eskumena baitu, inolako konpentsazio-eskubiderik gabe.

Programatik kanporatzearen ondorioz, SEED CAPITAL DE BIZKAIA, SGEIC, SAK emandako partaidetzako mailegua aurretiaz baliogabetu eta iraungiko litzateke, dagokion kontratuan zehaztutako baldintzen arabera. Era berean, kontratu horretan jasotako arrazoiengatik partaidetzako mailegua aurretiaz baliogabetzeak eta iraungitzeak Programatik kanporatzea ekarriko du.

4. Konfidentzialtasuna eta jabetza industrialaren/intelektualaren eskubideak

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan parte hartzeak berekin dakar Programan parte hartzen duten alde guztien konfidentzialtasun-konpromisoa.

Horretarako, BEAZ SAU sozietateak konfidentzialtasun-akordioak sinatuko ditu parte hartuko duten *startupekin*; akordio horietan zehaztuko dira aldeek hartu dituzten konpromisoak, dagozkion akordio-ereduen arabera, hala nola hauena: 7.2 2. Eranskina: BEAZen eta startuparen arteko konfidentzialtasun-akordioa.

5. Programaren oinarriak eta erantzukizuna onartzea

Inprimakia, memoria eta ikus-entzunezko dokumentazioa bidaltzeak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen direla Programaren deialdiko oinarri orokorrak eta espezifikoak.

Startup hautagaiak konpromisoa hartzen du inprimakia, memoria eta ikus-entzunezko dokumentazioa informazio zehatz eta egiazkoarekin betetzeko, eta bere gain hartzen du emandako datuen gaineko erantzukizun oro.

Startup hautagaiak Programaren edozein fasetan (hautaketa eta haren ondorengo egikaritzea) emandako informazioak hirugarrenen eskubideak urratuko balitu, BEAZ SAU sozietatea salbuetsita geratuko litzateke horrek eragin litzakeen kalteetatik, barne hartuta edozein motatako erreklamazioak edo prozedura judizial edo estrajudizialak.

Programaren oinarriak interpretatzeko eta betetzeko, erakunde antolatzaileak eta *startup*ak Bilboko Epaitegiaren eta Auzitegiaren jurisdikzioaren eta eskumenaren mende daude.

6. Azken kontsiderazioak

BEAZ ACCELERATION PROGRAM programaren deialdian parte hartzen duten *startupek*, parte hartze hutsagatik, berariaz onartzen dute BEAZ sozietateak haien izena nahiz *startup*arena eta dagozkien irudiak edota logoak erabiltzea, edozein bidetatik eta helburu korporatiboetarako eta Programari dagozkion publizitate- eta sustapen-helburuetarako edo gainerako parte-hartzaileek *startup* irabazleak zein diren jakinarazteko, inolako lurralde- edo denbora-mugarik gabe eta ordainik jaso gabe.

7. Eranskinak

7.1. 1. Eranskina: definizioak

Deck: (*investor deck* ere deitzen zaio) ingelesetik datorren termino bat da, eta enpresa baten negozio-planaren ikuspegi laburra baina konbentzigarria emateko erabiltzen da.

Oinarri teknologikoko enpresa¹: Produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko eta ikerketa- garapen- eta berrikuntza-ekimenak bideratzeko eta emaitzen berri emateko ezagutza zientifiko-teknikoak eta teknologia sortzea edo haiek modu intentsiboan erabiltzea behar duen jarduera batean aritzen den enpresa bat da.

Produkzio-zentroa: antolamendu espezifiko duen ekoizpen-unitatea, hala alta emanda dagoena lan-agintaritzaren aurrean, lantoki bat osatzen duena Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.5 artikulua arabera.

Negozio-eredu eskalagarria: Ematen dituzten zerbitzuen edo merkatuari eskaintzen dizkieten produktuen kalitatea aldatu gabe eta, merkatuan izan dezaketen garapen- edo hazkunde-prozesu batean, unitateko produkzio-kostuak mantenduz edo murriztuz beren prozesuak edo produkzio-sistemak egokitzeko gaitasuna duten enpresak dira.

Soluzio berritzailea edo bereizgarria: Arazo bat konpontzeko edo egoera bat hobetzeko produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo, teknikaren egoerarekin alderatuta, nabarmen hobetuak eta porrot teknologiko edo industrialerako arriskua dutenak garatzea.

Startup: Enpresa berritzaileak, ezagutza eta teknologia berrietan oinarritzen direnak, hazkunde azkarrekoak eta ondorengo baldintzak betetzen dituztenak:

- a) Sortu berriak izatea, edo, sortu berriak ez badira, zortzi urte igaro gabeak izatea sorrera-eskritura publikoa Merkataritza Erregistroan sartu zenetik.
- b) Egoitza soziala edo establezimendu iraunkorra Bizkaian izatea.

¹ Erreferentziak iturri hauetatik hartu dira: [Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa](#) eta [Enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko Lege Proiektua](#)

- c) Dokumentu honetan azaltzen den “soluzio berritzailea”ren definizioaren arabera, enpresa berritzailea izatea.
- d) Dibidenduak ez banatzea eta banatu ez izana.
- e) Merkatu arautu batean ez kotizatzea.

Lehiarako abantaila: enpresak dituen baliabideak eta gaitasunak, zeinek, nagusitasuna ematen baitiote merkatuan, edo lehiakide nagusien gainetik balio sortzeko gaitasuna.

7.2. 2. Eranskina: BEAZen eta startuparen arteko konfidentzialtasun-akordioa

KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA

Bilbon, 2022koaren(e)(a)n

BILDURIK

Alde batetik, **BEAZ, SAU (aurrerantzean, BEAZ)**sozietatea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko Sailaren mendeko Foru Sozietate Publikoa (helbide soziala: Gran Vía Diego López De Haro kalea, 25 - PK: 48009; IFK: A48229058), jauna/andrea ordezkari duela gisa, hari emandako eskumenaren bidez ziurtatzen denez, zeina kontratu honen **1. eranskin** gisa aurkeztu baitugu.

Bestetik, (**aurrerantzean, STARTUPa**) (helbide soziala:..... ; IFK:), jauna/andrea, adinez nagusia, NAN-zk. duena ordezkaria duela, gisa, hari emandako eskumenaren bidez ziurtatzen denez, zeina kontratu honen **2. eranskin** gisa aurkeztu baitugu.

Aurrerantzean, BEAZ sozietatea eta STARTUPa “Aldea” izango dira bakoitza bereiz aipatzen denean, eta “Aldeak”, batera aipatzen direnean.

Aldeek behar besteko lege-eskumena aitortzen diote elkarri kontratu hau gauzatzeko, eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I. BEAZ, SAU foru-sozietate publikoak (“BEAZ”), zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko Sailaren mendeko Foru Sozietate Publikoa baita, BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan (aurrerantzean, programa) parte hartzeko deialdi bat argitaratu

zuela, negozio-eredu eskalagarria duten eta hazkunde-fasean dauden Bizkaiko *startup* teknologiko eta berritzaileentzat, enpresa horiei beren proiektua garatzen laguntzeko.

II. *Startup* hau Programan parte hartzeko aukeratua izan dela, dagokion prozedura bete ostean.

III. Programan parte hartuko duenez, *Startup*ak bere negozio-ereduarekin, *know how*arekin, produkzio-prozesuekin, diseinuarekin eta abarrekin erlazionatutako informazioa, hots, *Startup*aren jabetza industrialeko eta intelektualeko informazioa, partekatuko duela BEAZ sozietatearekin. Era berean, BEAZ sozietateak *Startup*ari interesa dakizkiokeen baliabideak eta informazioa jarriko ditu haren esku. Aldeek Programa garatzeko ematen duten informazioa da konfidentzialtasun-akordio honen xede.

IV. Aldeek informazio hori babestu nahi dute baimenik gabe erabil eta heda ez dadin, eta horregatik sinatzen dute konfidentzialtasun-akordio hau (aurrerantzean, Akordioa). Akordioak klausula hauek ditu:

KLAUSULAK

1. XEDEA

Akordio honetan jasotzen dira Aldeek, programa garatzeko, ahoz, grafikoki edo idatziz edozein dokumentu-motatan edo euskarritan emango duten informazioaren trukea arautzeko zehaztapenak eta baldintzak.

2. INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN DEFINIZIOA

“Informazio konfidentziala” dela ulertzen da alde batek besteari Programa garatzeko ahoz nahiz idatziz ematen dion informazio oro; besteak beste, izaera teknikoa, finantzarioa, legala, fiskala eta komertziala duten informazioak, negozio-ereduak eta -estrategiak, *know how*a, bezero eta bazkideen izenak, proposatu diren edo aztergai diren edozein motatako proiektuak edo eragiketak, txostenak, planoak, merkatu-proiektzioak eta datuak, baita laneko azterketak eta dokumentuak, laburpenak, konparazioak, azterketak eta, oro har,

Aldeek elkarri ematen dioten informazio guztia ere, nola Akordioa sinatu aurretik, hala hura sinatu ondoren.

Aldeek adostu dute trukatu duten informazioa informazio Konfidentziala dela. Aldeek Informazio Konfidentziala ahoz trukatzeko duten bileretako akta egingo dute eta dokumentu horiek Informazio Konfidentzial gisa markatuko dituzte. Hala ere, dokumentu horiek hala ez identifikatzeak ez du esan nahi informazio hori konfidentziala ez denik.

3. ALDEEN BETEBEHARRAK

Aldeek konpromisoa hartzen dute informazio Konfidentziala Programa behar bezala garatzeko soilik erabiltzeko eta behar diren neurriak hartzeko konfidentzial gisa zehaztutako informazioa hala izan dadin; bereziki, neurri hauek hartuko dituzte:

1. Informazio Konfidentziala ezkutuan erabiltzea.
2. Emandako informazio Konfidentziala ez zabaltzea eta beste inori ez jakinaraztea, eta beste aldeak berariaz eta idatziz horretarako baimenik eman ezean hirugarrenek informazio hori kopiazea edo haiei jakinaraztea eragozte, akordio honetan aurreikusten diren salbuespenak kontuan hartuta.
3. Informazio Konfidentzialerako sarbidea langileei, bazkideei, azpikontrataturako langileei eta, Aldeekin duten harremana dela eta, informazio horretarako sarbidea behar duten pertsonen soilik ematea, ohartarazita konfidentzialtasuna gorde behar dutela.
4. Informazio Konfidentziala edo haren zatiak Akordio hau gauzatzeko helburuetarako soilik erabiltzea, beste edozein erabilera bazter utzita.

Aldeak elkarren arduradun izango dira betebeharrak hori betetzen ez bada.

4. INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN TRATAMENDUAREN SALBUESPENAK

Aurreko Klausulan xedatutakoa bazter utzi gabe, Aldeek informazio hau erabili edo hedatu ahal izango dute:

1. Publikoki ezaguna den edo Aldeek Konfidentzialtasun-akordio honetan hitzartutakorik hautsi ez arren zenbait bidetatik ezagun egin den informazioa.
2. Akordio hau sinatu aurretik hartzailearen esku zegoen informazioa; kasu horretan, hartzailea ez dago behartua informazio horren gaineko konfidentzialtasuna gordetzera.
3. Konfidentzialtasun-betebeharrik ez duen hirugarren batengandik datorren informazioa.
4. Legez edo errekerimendu judizial edo administrazio-errekerimendu baten ondorioz jakinarazi behar den informazioa. Kasu horretan, berehala emango zaio errekerimendu horren berri dagokion Aldeari.

5. INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN JABETZA

Informazio konfidentzialaren jabetza ematen duen Aldearena da. Inola ere ez da ulertuko Akordio honen bidez informazio-trukeak berekin dakarrenik informazio horren gaineko eskubideak ematea.

6. IRAUPENA

Akordio hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, baina eragina du sinatu aurretik jakinarazitako informazio Konfidentzialean ere. Aldeek konfidentzialtasuna gordetzeko eta informazio Konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak ez dira baliorik gabe geratuko eta indarrean jarraituko dute a) informazio Konfidentziala herri-jabarikoa den arte, betiere egoera horretara iristeko Hartzaileak ez baditu bere betebeharrak urratu; edo b) 5 urtez, bi aldeen arteko harremana eteten den unetik kontatzen hasita.

Adierazitakoa bazter utzi gabe, aldeen arteko harremana eten ostean, Programa amaitu ondoren edo aurreko kasuetako edozeinetan, Aldeek elkarri itzuliko diote informazio

Konfidentziala, eta suntsitu egingo dute egin duten kopia, laburpen, sinopsi, aurkibide, aldaketa, eraldaketa edo itzulpen oro.

7. LAGATZEKO DEBEKUA

Aldeek ezingo dituzte laga Akordio honi dagozkion eskubideak eta betebeharrak, beste Aldeak aurretiaz eta idatziz horretarako baimenik eman ezean.

8. EZ BETETZEA

Informazio konfidentziala baimenik gabe zabaltzeak BEAZ sozietatea ahaldunduko du Programa eskumenez eteteko.

Bestalde, bi Aldeek onartzen dute informazio Konfidentziala baimenik gabe zabaltzeak eta erabiltzeak, zabarkeriaz edo doloz dela ere, kalteak eragin diezazkiokeela hedapen horren ondorioak jasan ditzakeen Aldeari. Horregatik, Aldeek kalte-ordain bat eskatu ahal izango dute auzitegi eskudunen aurrean baimenik gabe informazioa zabaltzearen eta erabiltzearen ondorioz jasan dituzten kalteengatik, bai eta dagozkion bestelako legezko esku-hartzeak gauzatu ere.

9. AKORDIOA ALDATZEA

Akordio honetan edozein aldaketa egiteko, idatziz adostu beharko da aldez aurretik.

10. AKORDIOA MANTENTZEA

Akordio honetako xedapenen bat baliogabetzat, legez kanpokotzat edo aplikaezintzat jotzen bada ere, gainerako xedapenek indarrean jarraituko dute. Xedapen bat baliogabetzat, legez kanpokotzat edo aplikaezintzat jo aurretik, xedapen hori interpretatu, mugatu edo aldatu egingo da, akatsa konpondu ahal izateko.

11. AMAIERA

Akordio hau, indarrean dagoen legedi aplikagarrian aurreikusitako edozein arrazoirengatik ez ezik, arrazoi hauengatik baliogabetu ahal izango da:

1. Hitzartutako kontratu-epea iraungi delako.
2. Bi aldeek berariaz eta idatziz hala adostu dutelako.
3. Aldeetako batek Akordio honetan jasotako betebeharren bat bete ez duela-ko, baita Programatik kanporatzeko edozein arrazoirengatik ere.

12. DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua – datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa— eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa –datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko— betez, BEAZ ACCELERATION PROGRAMen izandako parte-hartzearen ondorioz tratatzen diren datu pertsonalen fluxuetatik, aldeek, beste aldearen datuen tratamenduaren arduradun gisa, interesdunak emandako datu pertsonal horiek tratatuko dituzte, DBEOren 6.1.b) artikulua –kontratu/akordioa gauzatzea— eta 6.1.c) artikulua –legezko betebeharrak betetzea— oinarri hartuta. Datuak aipaturiko programan parte hartzetik eratorritako harremana eta horri datxezkion legezko betebeharrak kudeatzeko bakarrik tratatuko dira.

Emandako datuak aipaturiko parte-hartzeak dirauen bitartean kontserbatuko dira eta, edozein kasutan, aldean arteko harremanari lotutako legeetan ezarritako epeetan. Datuak hirugarrenei lagako zaizkie baldin eta beharrezkoa bada aipaturiko programa behar bezala garatzeko, edo legezko betebeharrak bat dagoen kasuetan.

Interesdunek beren eskubideak baliatu ahalko dituzte alde bakoitzak xede horretarako gaitutako harremanetarako helbideetan; BEAZenak honako hauek dira:

- BEAZ S.A.U.ri idazki bat bidali behar zaio, NANaren edo antzeko identifikazio-agiriaren fotokopiarekin batera. Sabino Arana kalea 8, 48013 Bilbo.

- BEAZeko Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean: Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Ataleko burutza (Kale Nagusia 2, 6. – 48001 Bilbo).
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean (www.avpd.eus).
- Datuak Babesteko Espainiako Agentziari (www.aepd.es).

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus ezazu ondorengo webgune:

<https://gardentasuna.bizkaia.eus/es/web/beaz/proteccion-de-datos>

Aldeen titulartasunekoak diren eta tratamenduetan sartu diren datuak aldeen jabetzakoak dira beren-beregi. Datu horiek konfidentzialtasun-betebeharraren mende egongo dira, eta betebeharrak horrek BEAZ ACCELERATION PROGRAMeko parte-hartzea amaitu arte iraungo du.

Hirugarren pertsonen datuen tratamendua:

Hirugarren pertsonen datuen tratamenduari dagokionez, BEAZ ACCELERATION PROGRAMen xedea betetzeko, bi aldeek konpromisoa hartzen dute datuak babesteko araudian dagozkien betebeharrak betetzeko, besteak beste, beren datuen tratamenduaren terminoak, eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 12. artikulutik 14. artikulura bitartean ezarritako informatzeko betebeharrak betetzeko.

Elkarlaneko aplikazioak eta tresnak erabiltzea:

BEAZ S.A.Uren jarduketaren jarraipena eta kudeaketa egiteko elkarlaneko aplikazioak eta tresnak erabiltzen dira (Microsoft365, besteak beste) bere langile, bezero, hornitzaile eta kolaboratzaileekin. Aplikazio eta tresna horietan beren datu pertsonalak tratatzen dira (zehazki, izen-abizenak, posta elektronikoko helbidea, irudia edota ahotsa). Tresna horietako baten bitartez egiten diren bilerak, batzuetan, grabatu egiten dira. Hala izanez gero, aldez aurretik emango da egoera horren berri, datu horiek BEAZekiko harremana kudeatzeko erabiliko baitira soilik.

13. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Akordio honek izaera pribatua du eta Espainiako zuzenbideak arautzen du.

Aldeek adostu dute Bilboko Epaitegi eta Auzitegietan prozedura judizial bidez ebatziko dela Akordio honetan sortzen den eztabaida, desadostasun edo erreklamazio oro eta haiei eta Akordio honi egiten zaien zuzenketa oro, barne direla, bereziki, haren sorrera, baliozkotasuna, derrigortasuna, interpretazioa, egikaritzea, ez betetzea edo amaitzea, baita kontratuz kanpoko erreklamazioak ere.

14. JAKINARAZPENAK

Akordio honek eskatzen dituen edo harekin erlazionatuta dauden jakinarazpen, errekerimendu, akordio, baimen, Onarpen, Onarpen eta komunikazioak idatziz egin beharko dira.

Aldeen artean Informazio Konfidentziala trukatzeko eta Akordio honen egikaritze arunterako egiten diren bestelako komunikazioak pertsona hauei helaraziko zaizkie:

[Izen-abizenak], [helbide elektronikoa]

[Izen-abizenak], [helbide elektronikoa]

Aldeetakoren batek aurreko atal horietako datuak aldatuko balitu, beste Aldeari eman beharko lioke aldaketaren berri.

Eta Akordio honetan jasotzen diren zehaztapenak onartzen direla berariaz adierazteko, aldeek bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrerako, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Izpta.:_____ Izpta.:_____.

7.3. 3. Eranskina: atxikimendu-akordioa

Bilbon,(e)koaren(a)(a)n

Batetik, jauna/andrea, BEAZ SAU sozietatearen izenean (*identifikazio-datuak osorik*).

Bestetik, jauna/andrea,(r)en izenean (*Hautatutako STARTUPa - identifikazio-datuak osorik*).

Honako hau adierazten dute:

1)(e)(a)n BEAZ SAU sozietatearen webgunearen bidez egindako deialdiaren ondoren, eta Oinarrietan adierazitako hautaketa-prozesuaren bidez, *startupa* hautatu da BEAZ ACCELERATION PROGRAM programan (aurrerantzean, «Programa») parte hartzeko eta programa horretan proiektu hau garatzeko:

2) Dokumentu honen bidez, *startupak* bat egiten du Programarekin, eta adierazten du baldintzarik gabe onartzen dituela Oinarriak eta haietan zehazten diren konpromisoak eta betebeharrak; bereziki, Programan parte hartzeari eta haren jardueri eta edukiei ahalik eta probetxurik handiena ateratzeari dagokienez.

3) Dokumentu hau sinatzean, *startupa* Programan parte hartzen hasiko da, Oinarrietan aurreikusita dauden ondorio guztietarako.

Hala sinatzen dute bi aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

7.4. 4. Eranskina: Onarpen Batzordea

Onarpen-Batzordea osatzen duen taldea honako hau izango da:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saileko Ekintzailletza eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendari Nagusia
- Bizkaiko Foru Aldundiko Enpresak Sustatzeko Zerbitzuo Burua
- Beazeko zuzendari nagusia
- Beazeko Ekintzailletza zuzendaria
- Seed Capital Bizkaiaiko Zuzendari Nagusia
- Seed Capital Bizkaiaiko koordinazioa
- Inbertsio pribatuko kidea
- Inbertsio pribatuko kidea
- Inbertsio pribatuko kidea
- Inbertsio pribatuko kidea